

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Zaharrak



ARITZ GALARRAGA

Pribilejiatu bat naiz, badakit. Bizi garen etxeak elkar hiltzea desio ez izateko adina espazio dauka –ez gara berralokatutako gela batean bizi, gure kasuan lau pertsona, hamar metro karratutan–: badaukagu, hala behar izatera, gela bana, balkoi bat, joan-etorriak egiteko pasilloa. Seme-alabak ez dira txikiegiak, egun osoa inguruan molestatzen ibiltzeko, ez handiegiak, egun osoa lagunekin kalera atera nahi izateko; gainera hizketaldi inteligentek edukitu daitezke jada, eta oraino, haiekin. Osasun on samarra daukagu, batez ere fisikoa, nahiz korrikarik ez egin; tira, epidemia hasi aurretik geneukanaren berdintsua, behintzat.

Pribilejiatu bat naiz: gurasoak zaharrak dira, baina gaztee-giak oraindik asko-asko kezkatzeko. Ez dira arrisku talde, ez patologiaren baten jabe, ondo daudela ematen du telefonoz mintzo garen bakoitzean. Baina zaharrak dira hala ere –zaharrak, bai, ez adintsu, adindun, adinekoak; gazteak existitzen diren bezala –existitu, diot, ulertzea beste kontu bat da–, zaharrak ere existituko dira, ezta? Gero tartean gaude gu, adin ertaina, ze gauza ederra–. Eta hil diren gehiengo handi bat zaharrak izan dira, hiltzen utzi ditugun gehienak, adibidez erresidentzietan –diotenez hildakoen %70, aurretik erresidentzien eredia zalantzan jartzeko motibo ugari ez balego bezala–. Paidokraziaz hitz egin genuen moduan, gerontofobiaz hitz egiten has gintezke beraz? Santiago Alba Rico urrunago doa, eta, judutarrei erreferentziarik egin gabe, holokaustoa aipatu du, holokausto hitzak, etimologikoki, populazioaren multzo jakin bat sakrifikatzea esan nahi baitu. Argi dagoena da ondo planteatu beharra dugula, gizarte gisa, zer harreman daukagun heriotzarekin eta gero eta luzeagoak diren bizitzekin. Pribilejiatu bat naiz, badakit. Eta, hala ere, zaharregian pentsatzen dudanean, aurki gu ere izango garen zahar horien-gan, korapiloa egiten zait zintzurrean. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



"PANDEMIAK GORROTO ETA XENOFOBIA OLATUA HAUSPOTU DU"

ANTONIO GUTERRES, NAZIO BATUEN ERAKUNDEKO IDAZKARI NAGUSIA

"Errudunak bilatu nahian eta beldurra sustatuz", interneten eta kalean arrazakeriak eta xenofobiak gora egin dutela ohartarazi du Guterresek. Migratzaileak eta errefuxiatuak birusaren iturritzat jo eta segidan tratamendu medikua ukatu zaiela salatu du. Nazioarte mailako deia egin du, konspirazioek, musulmanen kontrako erasoek eta abarrek hartu duten indarrak kezkatuta. Agintari politikoei, hezkuntza erakundeei, hedabideei eta oro har gizarteari eskatu die joera hau geratzeko ahal dutena egin dezaten. **2020/05/09**

